

IGI ZURE POLTSIKOAN

Gogoratu Itsasoko Gizarte Institutuan izapideak egiten jarraitu ahal izango duzula Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoen bidez:

 <https://sede.seg-social.gob.es/>

Edo gure probintzia-helbideetan aurrez aurre, hitzordua eskatuz Egoitza Elektronikoaren bidez, telefonoz edo IGI aplikazioaren bidez, zure poltsikoan.

NIRE BURUA IDENTIFIKATU BEHAR DUT APLIKAZIOAN SARTU BEHAR DUZUN BAKOITZEAN?

Bai, baina pasahitzak gogoratu beharrik ez duzu izango, baldin eta sartzeko aplikazioa zure datu biometrikoekin konfiguratu baduzu. Horretarako, alboko menuan aurkituko duzun konfigurazioaren atalera sartu eta azterketa biometrikoa aktibatu beharko duzu.

Deskargatu
ISM en tu bolsillo
kode hau eskaneatuz:



 @ISMrevistaMar

IGI ZURE POLTSIKOAN



Nipo papel: 123-21-084-2
Nipo digital: 123-21-085-8
Depósito legal: M-27485-2021

ZER DA IGI ZURE POLTSIKOAN?

IGI ZURE POLTSIKOAN mugikorrerako eta tabletarako eskuragarri dagoen aplikazio bat da, Itsasoko Gizarte Institutuarekin edozein lekutatik zure gestio guztiak egiteko aukera emango dizuna bulego batera joan beharrik gabe.

ZER EGIN BEHAR DUZU IGI ZURE POLTSIKOAN ERABILTZEKO?



DESKARGATU Google Play eta App Storen eskuragarri dagoen aplikazioa.



IDENTIFIKATU:

Funtzionalitate guztietara sartzeko Cl@ve Iraunkorra eduki beharko duzu. Oraindik ez badaukazu gure bulegoetara joan zaitezke Cl@ve-n erregistratzera.

cl@ve

SMS bidez ere identifikatu ahal izango zara, zure telefono mugikorraren zenbakia Gizarte Segurantzaren erregistratuta baduzu.

ZER AURKI DEZAKEZU IGIN ZURE POLTSIKOAN?

Saioa hastean, aplikazioak hasierako pantaila bat erakutsiko du zeinean bertan zuri buruz daukagun informazio eguneratu guztia aurrekargatuta aurkituko duzun:



Pantailaren behealdean nabigazio-botoi batzuk ere izango dituzu aplikazioaren funtzionaltasunetara sartzeko:




NIRE DOKUMENTUAK

Hemen gordeko dira zerbitzuen menutik deskargatu dituzun zure txostenak eta ziurtagiriak, edozein unetan eskuragarri izan ditzazun, baita Interneterako konexiorik ez duzunean ere.



ZERBITZUAK

Itsasoko Araubide Berezian duzun egoeraren arabera (jardunean, pentsioduna, langabezian edo jarduera uzten duena), zerbitzu hauek eskaintzen dizkizugu modu pertsonalizatuan:



- Itsas osasunean: zure mediku-txostenak eta ziurtagiriak deskargatzea (ontziratze gaitasunaren ziurtagiri medikua, mediku-txostenak, espirometriak, analitikak, etab.) eta ospitale-ontziak aurkitzeko zerbitzua.
- Gizarte Segurantzaren erretiroaren simulatzailea eta zure txosten eta ziurtagiriaren deskarga (lan-bizitza, prestazioen ziurtagiri integrala, langilearen egungo egoera, KM, kotizazio-datuak, etab.).
- Itsasoko eta osasuneko prestakuntza: prestakuntza-eskaera aktiboak eta osasun-prestakuntza espezifikoen ziurtagiriaren iraungipena.
- Aurretiko hitzorduan: itsas ontziratzearen azterketa medikua egiteko edo gure bulegoetan egin behar dituzun beste gestio batzuetarako aurretiko hitzordua eskatu ahal izango duzu.



ERREGISTROA

Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzu pentsioak, prestazioak/sorospenak, prestakuntza, ziurtagiriak edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatzen dituen beste gai batzuekin lotutako eskabideak edo dokumentuak.



KONTSULTEN POSTONTZIA

Itsasoko Gizarte Institutuarekin dituzun gestioei buruzko kontsultak edo zalantzak bidali ahal izango dizkizugu.



ABISUAK

hainbat abisu helaraziko dizkizugu, besteak beste, ontziratze gaitasunaren ziurtagiriaren iraungipenari buruz, zure KMa eguneratzeari buruz, aitortpen berria gogorarazteari buruz, Kontsulta-Postontzian erantzun berriari buruz edo zerbitzu berriak sartzeari buruz.